



Hondarribiko
Udala

Esptea./Expte.: 2022COMG0002
Erref./Ref.: GU/NDB

**HONDARRIBIKO TOKIKO GOBERNU
BATZARRAK 2022KO ABUZTUAREN 31N
EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA.**

Hondarribiko Hirian, bi mila eta hogeita biko abuztuaren 31n, hamarrak eta berrogeita bost minututan, Udaletxe honetan Tokiko Gobernu Batzarra bildu da Txomin Sagarzazu Ancisar Alkate jaunaren Lehendakartzapean eta ondoren aipatzen diren Alkateordeak partaide direla María Serrano Olascoaga, Juan Luis Silanes Aguirre, Gotzone Larrarte Campandegui eta Gonzalo Carrión Insausti jaun-andreak.

Ezin etorria adierazi du Juan M^a Altuna Muñoa jaunak.

Gorka Urgoiti Agirre jauna, Udal Idazkaria ere bertan izan da.

Biltzarburuak bilkura hasirik, Eguneko Zerrendan agertzen den ondoko gaia aztertu da:

ALKATETZA

**1.-2022. URTEKO HIRIKO URREZKO
INTSIGNIARI BURUZKOA**

2022ko abuztuaren 31ko Tokiko Gobernu Batzarraren bilkuran honako akordioa hartu da:

“Alkatetzak egindako proposamena kontuan hartuz, 2022. urteko Urrezko Intsignia UNAI EMERY ETXEGOIEN jaunari emateari buruzkoa.

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA
CELEBRADA POR LA JUNTA LOCAL DE
GOBIERNO DE ESTA CIUDAD DE HON-
DARRIBIA EL DIA 31 DE AGOSTO DE
2022.**

En la Ciudad de Hondarribia a treinta y uno de agosto de dos mil veintidós, siendo las diez horas y cuarenta y cinco minutos, se reúne la Comisión de Gobierno de este Ayuntamiento en las dependencias municipales, bajo la presidencia del Sr. Alcalde D. Txomin Sagarzazu Ancisar y con la asistencia de los Tenientes de Alcalde Sres./Sras. D^a María Serrano Olascoaga, D. Juan Luis Silanes Aguirre, D^a Gotzone Larrarte Campandegui y D. Gonzalo Carrión Insausti.

No asiste justificando su ausencia: Juan M^a Altuna Muñoa.

Asiste asimismo el Secretario de la Corporación, Don Gorka Urgoiti Agirre.

Abierta la sesión por la Presidencia, se procede al estudio y debate del siguiente punto que figura en el Orden el Día:

ALCALDÍA

**1.- RELATIVO A LA INSIGNIA DE ORO
DE LA CIUDAD DEL AÑO 2022**

En reunión de la Junta Local de Gobierno con fecha 31 de agosto de 2022 se adopta el siguiente acuerdo:

“Dada cuenta de la propuesta de la Alcaldía para la concesión de la Insignia de Oro de la Ciudad del año 2022 a Don UNAI EMERY ETXEGOIEN.



Hondarribiko
Udala

Kontuan hartuz Unai Emery Etxegoien jaunak gaur egunera arte kirol munduan egindako ibilbidearen bikaintasuna, lehenbizi futbol jokalaria modura, eta gero, eta bereziki, Europako talde nabarmenen entrenatzaile modura (Valentzia, Moskuko Spartak, Sevilla, Paris Saint-Germain, Londreseko Arsenal eta Villarrealen, besteak beste), eta horietako batzuekin lortutako kirol emaitzen bikaintasuna (Europa Leagueko titulua 2013-2014, 2014-2015, 2015-2016 eta 2020-2021 denboraldietan, Frantziako Liga 2018an, Frantziako Ligaren Kopa 2017 eta 2018an, Frantziako Kopa 2017 eta 2018an, Frantziako Superkopa 2016 eta 2017, besteak beste).

Kontuan hartuz bere ibilbide profesionalean nahiz hedabideetan eten gabe adierazten dituen giza-balio aberatsak eta, horien artean bereziki Hondarribiarekiko duen atxikimendu estua eta ondorioz hiriaren kanpo-proiektzioarako duen eragin positiboa”.

Alkatetzari bere eskumenak betetzen laguntzen dion Tokiko Gobernu Batzarrak dioena entzun ondoren, Alkate jaunak honakoa **EBATZI DU**:

2022. urteko Urrezko Intsignia UNAI EMERY ETXEGOIEN jaunari ematea, bere kirol bilakaeran izandako lorpen bikainengatik, adierazten dituen giza-balio aberatsengatik (horien artean bereziki Hondarribiarekiko atxikimendu estua), eta hiriaren kanpo-proiektzioarako duen eragin handiarengatik.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, biltzarburuak bilkura amaitutzat eman du hamarrak eta berrogeita hamabostean, neuk ziurtatzen dudan behin-behineko akta hau luzatuz.

**O.E./VºBº
ALKATEA/ El Alcalde
Txomin Sagarzazu Ancisar**

Teniendo en cuenta la excelencia de la trayectoria de Unai Emery Etxegoien hasta la fecha en el mundo del deporte, primero como jugador de fútbol y luego, y en especial, como entrenador de destacados equipos Europeos (Valencia, Spartak de Moscú, Sevilla, París Saint-Germain, Arsenal de Londres y Villarreal, entre otros), y la excelencia de los resultados deportivos obtenidos con algunos de ellos (título de la Europa League en las temporadas 2013-2014, 2014-2015, 2015-2016 y 2020-2021, Liga Francesa en 2018, Copa de la Liga Francesa en 2017 y 2018, Copa de Francia en 2017 y 2018, Supercopa de Francia 2016 y 2017, entre otros).

Teniendo en cuenta los valores humanos que manifiesta, tanto en su trayectoria profesional como en los medios de comunicación, y entre los que destaca su gran apego a Hondarribia y su consecuente impacto positivo para la proyección exterior de la ciudad”.

Oída la Junta Local de Gobierno, en su función de órgano de asistencia a la Alcaldía en el ejercicio de sus atribuciones, el Sr. Alcalde en **RESUELVE**:

Conceder la Insignia de Oro de la Ciudad del año 2022 a Don UNAI EMERY ETXEGOIEN por sus excelentes logros en su devenir deportivo, por los ricos valores humanos que manifiesta (entre los que destaca su gran apego a Hondarribia), y por su gran impacto en la proyección exterior de la ciudad.

Y no habiendo más asuntos de que tratar, la presidencia levantó la sesión a las diez horas y cincuenta y cinco minutos, extendiéndose este borrador de acta de que certifico.



Hondarribiko
Udala



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU75212313-74b8-4a1c-b769-dc4db64dff95**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=03610>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=03610>**